Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko urtarrilaren 2a, asteazkena — 1 — Miércoles, a 2 de enero de 2019

## TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

### USURBILGO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2018 urteko diru-laguntzaren kopuruak behin betiko onartu zituen.

Erabakia finkoa da eta amaiera eman dio administrazio bideari.

— Errekurtsoak:

Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Usurbil, 2018ko abenduaren 5a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (8149)

*Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia. Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairurako diru-laguntza.*

IKUSIRIK

2018ko maiatzaren 25ean argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2018 urteko diru-laguntzaren oinarriak arautuz eta aurkezteko epea irailaren 30 arte emanez.

Diru-laguntza honen bitartez gehienez ere bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:

— Lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 € hilean.

— Bigarren urtean gastuaren % 30a, gehienez ere 200 € hilean.

Lokalaren alokairuaren prezioa gehienez ere 10 €/m²ko izango da.

### AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, en su reunión celebrada el día 5 de diciembre de 2018, acordó la aprobación definitiva de los importes correspondientes a las ayudas relacionadas con la subvención del 2018 a la persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial situado en Usurbil.

El acuerdo es firme y pone fin a la vía administrativa.

— Recursos:

Con carácter previo a la vía judicial, las personas interesadas podrán interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Las personas interesadas dispondrán de un plazo de un mes para ello, a partir del día siguiente a aquel en el que hayan recibido la notificación del acuerdo.

No obstante, pueden acudir directamente a la jurisdicción contencioso-administrativa sin interponer recurso de reposición, así como acudir a la misma en el caso de querer recurrir la respuesta dada al recurso de reposición. El plazo en este caso será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. Para ello, deberán dirigir el recurso al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Por otra parte, en caso de que la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Usurbil, a 5 de diciembre de 2018.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (8149)

*Acuerdo de la Junta de Gobierno Local. Subvención para el alquiler de un local comercial vacío situado en Usurbil a la persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica.*

VISTO

Que el día 25 de mayo de 2018 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio de las bases reguladoras de la subvención a la persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial vacío situado en Usurbil, donde se regulaban las bases de la subvención para el año 2018 y el plazo de presentación de solicitudes era hasta el 30 de septiembre.

Se subvencionarán como máximo los gastos de alquiler de los dos primeros años:

— El primer año, el 40 % del gasto de alquiler, 300 € al mes como máximo.

— El segundo año, el 30 % del gasto de alquiler, 200 € al mes como máximo.

El precio del alquiler será como máximo de 10 €/m².

EK\CV GAO-I-2018-08149

Diru-laguntzaren zenbatekoa, alokairu gastuei dagokiena bakarrik izango da (BEZ-a eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak, e.a.).

Udalaren deialdian onartutako diru-laguntza, gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena izango da. Datorren urtean diru-laguntza jasotzen jarraitu ahal izateko, dagokion urteko deialdian diru-laguntzaren luzapena eskatu beharko da. Diru-laguntza gehienez ere 24 hilabeteko alokairu gastuei dagokiona izango da.

Epea amaituta, lehengo urterako diru-laguntza eskaerarik ez da aurkeztu eta lehengo urtetik datozen bi eskatzaileak bigarren urterako eskaera egin dute:

— *Eskatzailea:* Tapuntu koop. Elkarte Txikia.
*IFK:* F75137216.
*Enpresaren jarduera:* Komunikazioa.

— *Eskatzailea:* Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkartea.
*IFK:* G75175679.
*Enpresaren jarduera:* Elkarlan gunea.

Tapuntu koop. Elkarte Txikiak eta Kabienek 2. urteko diru-laguntza eskaerarekin batera indarrean duten alokairu kontratuaren kopia aurkeztu dute.

Tapuntu koop. Elkarte Txikiak, Zubiaurrenea 6 (Usurbil) helbidean kokaturiko 80 m$^2$ko lokala, hilean 800 € -ko prezioarekin eta Kabiene elkarteak berriz, Zelai handi kalea,3, Osinalde industrialdea (Usurbil) helbidean kokaturiko 5.solairuan, 165 m$^2$ko lokalaren alokairu kontratua aurkeztu du, hilean 715 €-ko prezioarekin.

Beraz, oinarrietan agertzen denaren arabera bigarren urtean diruz lagundu daitekeena kontutan hartuz (alokairu gastuaren % 30a, gehienez ere 200 € hilean), honako hau dagokie bakoitzari:

Tapuntu koop. Elkarte Txikiari 200 € hilean eta Kabiene elkarteari ere beste 200 € hilean.

Aurkeztutako agirien egiaztapena egin ondoren 2018ko urriaren 15ean epaimahai kalifikatzailea bildu da, (Garapen eta Hezkuntza Saileko arduradun politikoa, Siadeco, Hurbilago elkarteko ordezkaria, Beterri-Buruntza ekinean zerbitzuko teknikaria eta Garapen eta Hezkuntza saileko teknikaria), eta aho batez onartu da, 2.urteari dagokion diru-laguntza ematea.

Bestalde, Hezkuntza eta Garapen Ekonomiko arloko teknikariak txostena egin eta urriaren 31eko Hezkuntza eta Garapen Ekonomiko ez-ohiko Batzordera eraman du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman zezan.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2018ko azaroaren 8an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen diru-laguntza honen inguruan.

Ebazpen proposamena 2018ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

ETA KONTUAN HARTURIK

— Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.

La base para el cálculo de la cuantía de la subvención la constituirán únicamente los gastos de alquiler (sin incluir el pago del IVA y demás impuestos y tasas, y tampoco la retención), y no se tendrán en cuenta otros gastos relacionados con el uso del local (gastos de comunidad, gastos agua y electricidad, etc.).

La subvención aprobada en cada convocatoria del ayuntamiento corresponderá únicamente a los gastos de alquiler de 12 meses. Para poder continuar recibiendo la subvención, se deberá solicitar, en la convocatoria correspondiente, la prórroga de la subvención, y la subvención obtenida por medio de las distintas convocatorias será como máximo la correspondiente a los gastos de alquiler de 24 meses.

Una vez finalizado el plazo, no se han recibido nuevas solicitudes para el primer año y los solicitantes del año pasado han realizado la solicitud para el segundo año.

— *Solicitante:* Tapuntu koop. Elkarte Txikia.
*NIF:* F75137216.
*Proyecto de empresa:* Comunicación.

— *Solicitante:* Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkartea.
*NIF:* G75175679.
*Proyecto de empresa:* Coworking.

Tapuntu koop. Elkarte Txikia y Kabiene han presentado el contrato de alquiler del local en vigor.

Tapuntu koop. Elkarte Txikia ubicado en la dirección Zubiaurrenea 6 (Usurbil), local de 80 m$^2$, con el precio de 800 € mensuales y la asociación de Kabiene, ubicado en la dirección Zelai handi kalea 3, piso 5, en el polígono industrial Osinalde (Usurbil), de 165 m$^2$, con el precio de 715 € al mes.

Por lo tanto, teniendo en cuenta lo que se puede subvencionar en el segundo año según las bases (el 30 % del gasto de alquiler, como mucho 200 €), a cada solicitante le corresponde lo siguiente:

A Tapuntu koop. Elkarte Txikia 200 € al mes y a Kabiene elkartea 200 € al mes.

Después de hacer la verificación de los documentos presentados el 15 de octubre de 2018 se ha reunido el Tribunal calificador, (La responsable político del departamento de desarrollo económico y Educación, Siadeco, el representante de la asociación Hurbilago, la técnica del servicio Beterri-Buruntza Ekinean y la técnica del departamento de Desarrollo y Educación), y se ha decidido por unanimidad conceder la subvención para el segundo año.

Por otro lado, la técnica del Departamento de Desarrollo y Educación ha realizado el correspondiente informe, habiéndolo sometido a la Comisión Extraordinaria de Desarrollo y Educación de 31 de octubre, para que ésta, teniendo en cuenta dicho informe, se pronuncie en torno a la cuestión.

La Comisión General de subvenciones, en su reunión celebrada el día 8 de noviembre de 2018, emitió la propuesta de resolución en relación a esta subvención.

Dicha propuesta de resolución se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 14 de noviembre de 2018, concediendo a las personas interesadas un plazo de 10 días para la presentación de alegaciones.

La propuesta provisional fue publicadas asimismo en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus.

Transcurrido dicho plazo no se ha presentado alegación alguna.

CONSIDERANDO

— La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2018-08149

— Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008/07/01).

— Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2018 urteko diru-laguntzaren oinarriak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2018/05/25).

— Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2018 urteko diru-laguntzaren behin behineko ebazpena (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2018/11/14).

— Kontuhartzailetza Sailaren ziurtagiria.

EBAZPENA

*Lehenengoa:* Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten bi ekintzailearentzat diru laguntza behin betikoz onartzea.

— *Eskatzailea:* Tapuntu koop. Elkarte Txikia.
*Diru-laguntzaren zenbatekoa:* 200 € / hilean.
*12 hilabete:* 2.400 €.

— *Eskatzailea:* Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkartea.
*Diru-laguntzaren zenbatekoa:* 200 €/hilean.
*12 hilabete:* 2.400 €.

*Bigarrena:* Hilero justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gaindituako hilabetera jasoko du ekintzaileak. Laguntza ekonomiko hau jaso ahal izateko, hilero ordainagiria aurkeztu beharko du Erregistro Nagusian.

*Hirugarrena:* Garapen ekonomiko diru-laguntzak aurrekontupartida honen kargura joango dira: 1.5000.481.241.00.02 (A 1128/2018).

*Laugarrena:* Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian behin betiko ebazpenaren berri emango da.

*Bosgarrena:* kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

— La ordenanza municipal reguladora de las subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 01/07/2008).

— Las bases de la subvención de 2018 a una persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial vacío situado en Usurbil (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 25/05/2018).

— Resolución provisional de la subvención de 2018 a una persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial vacío situado en Usurbil (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 14/11/2018).

— Certificado de la interventora municipal.

RESOLUCIÓN

*Primero:* Aceptar la subvención para las dos entidades emprendedoras que quieren poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial situado en Usurbil.

— *Solicitante:* Tapuntu koop. Elkarte Txikia.
*Cantidad subvención:* 200 € / mes.
*12 meses:* 2.400 €.

— *Solicitante:* Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkartea.
*Cantidad subvención:* 200 €/ mes.
*12 meses:* 2.400 €.

*Segundo:* La entidad emprendedora recibirá la ayuda económica una vez justificado el pago a mes vencido. Para poder recibir esta ayuda económica, deberá presentar mensualmente el recibo correspondiente en el Registro General municipal.

*Tercero:* Las ayudas de desarrollo económico se concederán con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1.5000.481.241.00.02 (A 1128/2018).

*Cuarto:* La resolución definitiva será publicada en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus.

*Quinto:* Se dará cuenta del acuerdo a la Intervención municipal.

EK\CV GAO-I-2018-08149